

KALEZAR

Andoni Udabe



Sagardoa: Udazkeneko salda

Oraingoan ez dut oso urrutira jo behar izan. Noaua!ko tartetxo hau beteko duen gai emankor bat aurkitzeko. Balkoira irten eta inguruan nuenari begira jarri naiz pentsakor.

Zuhaitzen hostoek kolore berdea galdu dute eta zuhaitz adarretan irauteko ere nahikoa lan badute bakarren batzuk. Aurpegia hego-haize epel batek laztandu dit eta sudurrea, berriz, tolaean jo berria den sagarraren usain gozoa iritsi zait.

Halaber, auzotar batzuren ehiza kontuek ere nere arreta irabazi dute, izan ere, urte sasoi hau iristeko zuten egonezinaz

eta erositako azken kartutxo ez mintzo baitira gogotsu.

Garbi dago udazkena ailegatu dela, ehiztarien eta sagardoaren garaia alajaina!

Urte sasoi hau sagardogileen-tzat garrantzi handikoa da, izan ere, otsaila ingurutik aurrera dastatzen den sagardo preziatu hori, orain jaiotzen baita. Orain dela egun batzuk bildutako sagarrak jotzen hasiak dira dagoeneko auzoko sagardogileak; bai sagardotegieta-koak, baita baserrietakoak ere. Azken hauek etxerako bakarrik egiten dute, baina hala eta guztiz ere aipatu gabe ezin utzi. Aurten ere kanpotar bat

baino gehiago izango da auzoan barrena sagardotegi bila galduta ibiliko dena. Kapotarra beharko, ezagunen bat edo bertakoren bat horrela ikustea ez litzateke piura izango eta!

Kontu hauekin guztiekin egarritu ere egin naiz! Hara! Sagardo gozoz beteriko pitxar bat iritsi da nere eskuetara! (Barkatu, baina halako aukera bati ez diot muzion egin! Itxaron momentu bat mesedez. Glup, glup, glup...)

Ostras! Aurtengo sagardoa bikaina etorriko denaren errezela daukat. Hilabete batzuren buruan ondo jakingo dugu.

ATXEGALDE

Maria Jesus Urbieta



Udazkenean bete-betea

Badirudi gure auzoa normaltasuneraino itzuli dela. Udarako opor luzeak pasa ondoren, gure gaztetxo eta txikiak Ikastolara eta haurtzaindegira itzuli dira. Gurasoak ere beren lantoki eta beharretan murgildu dira; azken finean,



gure eguneroko zereginetara itzuli gara. Izan ere, abuztua oso lasaia izaten da auzoan, oso mugimendu gutxi egoten baita urte garai honetan. Oporretan batzuk beren herrira edo familia ikustera joaten dira, beste batzuk, aldiz, urtero txoko ezberdinak ezagutze-
ra.

Gure auzoa berez nahikoa txikia denez bakarti samar geratzen da udara partean, hala ere, urteak joan urteak etorri badirudi gauza batzuk ez direla aldatzen, urte guztian lan eta lan aritzen gara atsedendaldi baten zain eta konturatzerako berriz martxan gara.

Gure kaleek ere izan dute oporrik. Urtean zehar, eta batez ere iluntze partean, ezinezkoa da Atxegalden kotxea aparkatzea. Udaran lasaiago egon da auzoa, baina oporrak bukatu eta aurretik genuen arazo berdinarekin egin dugu topo.

Zoritxarrez ez da Atxegalden bakarrik dugun arazoa, herrira joanez gero ere berdina somatzen dugu. Beste auzoetan arazoa are nabarmenagoa izaten da, gainera.

Eta aurrerantzean arazoak konponbide nahiko kaskarra dauka, egunetik egunera kotxe gehiago baitago herriko txoko guztietan.